

“Begiratzeari utzi eta ikusten hasi behar dugu, besteen lekuan jarritz”

Mikel Etxaburu idazle bizkaitarrak ‘Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak’ poesia liburua plazaratu du

✦ **Marta Esnaola**
 ✦ **Ruben Plaza**


DONOSTIA – Bere jaioterrian hainbeste garrantzia duen itsasoa, argiak forma ezberdinetan eta esperantza asko ageri dira *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* poema bilduman. Mikel Etxaburu (Ondarroa, 1969) idazleak lan handia egin du bere olerkien eta bizipenen bitartez, jendeak urrats bat eman dezan: “Begiratzeari utzi eta ikusten hasi behar dugu, eta horretarako kontzientzia beharrezkoa da”, azaldu zuen atzo egileak. Blas de Otero Sariari esker Erein argitaletxearekin plazaratu duen liburua aurkezpenen.

Bertan “arnas” ezberdinak bildu ditu Etxaburuk, maitasuna, bakardadea eta kartzelaldia, besteak beste, eta bere bizitzako une ezberdinek utzitako orbanetatik abiatu da enpatiaz eta kritikotasunez betetako lan hau sortzeko. “Gauza ezberdin askoz idatzi dut, nire burua sortzen jarri dut eta hau da emaitza: guztiak lotura bat edo hari bat du, eta horrela eman diot forma bildumari, askotariko olerkiak baten dituen”, esan zuen Euskal Filologian lizentziatua eta HUEZIn irakaslea den idazleak.

“Barneko bulkada baten ondorioz hasi nintzen liburua idazten, ondo itxi gabeko orbainen ondorioz, eta jendea ikusi behar dugula azaldu nahi izan dut”, esan zuen idazle bizkaitarrak, eta horregatik etxegabeak, yonkiak eta beste “esperantzagabeek” presentzia handia dute poe-

sia bilduman. “Hala ere, itxaropen pixka batekin hitz egin dut haueztaz”, gaineratu zuen Etxaburuk, bere usteetan, pertsona hauek eurek ikustea nahi dutela argudiatuz. “Guztiok jarrera hipokrita dugu askotan, eta saiatu beharko ginatke besteen lekuan jartzan”, nabarmendu zuen idazle eta irakasleak, bere usteetan, guztiok hori nahi baitugu. “Ez dugu zerura begira ibili behar, behera begira baizik bizitza planeatzen”, gaineratu zuen.

Idazlearen iritziz, poesia tresna bezala erabili daiteke, eta bere helburuetako bat jendeak norbanakoan inbertitzea da. “Poesiak zurrunbilitik ateratzea bultzatzen du eta indar handia du, lehenengo sentitu egiten baita eta gero, ulertu”, azpimarratu zuen eta berak, sortzaile bezala, bere olerkiak iraultzaileak izatea eta edukia edukitzea gustatzen zaio. “Poesia ez da soilik errealitatea islatzeko, eraldatzeko indarra dauka eta hori erabili nahi izan dut”, esan zuen. Gainera, kritikotasun bat ere eskatu zuen literaturarentzat, gauzak aldatu behar direla uste baitu Etxaburuk. “Gutxi batzuk ahal duguna egiten badugu, edukia ematen badugu, korronteak sortuko ditugu eta hori beharrezkoa da”, adierazi zuen. “Pertsona askeetan sinisten dut: irakurketa kritikoa egiten dutenak –ez titularrei gainbegiratu bat eman– eta horrekin jarduten dutenak”. Bere usteetan, norbanakoan inbertitu behar da gizarte hobeei baten lortzeko. Bere hirugarren poesia liburua da



Mikel Etxaburu idazlea, atzo, Donostiako Alde Zaharrean.

“Poesia ez da soilik errealitatea islatzeko, eraldatzeko indarra dauka eta hori erabili dut”

MIKEL ETXABURU
 idazlea

hau, eta Joseba Sarrionandia, Manuel Bandeira eta beste hainbat poetaren erreferentziak eduki ditu lan egiterakoan, eta “hauen moduan, itxaropenaren aldeko borrokan” sinesten duela azpimarratu zuen. “Batzuek diote poetek exiliotik idazten dugula; nik ez dakit hala den, baina konbentzitu nago, behintzat, esperantza sobe-ran daukagula”, adierazi zuen. ●

Lisipe, euskaraz sortutako lehen bilduma feminista

Liburu sortaren lehen alea Zuriñe Rodríguez eta Oihana Etxebarrietaren ‘Borroka armatua eta kartzelak’ da

DONOSTIA – Lisipe emakume gertaria zen, amazona bat, eta kasu honetan, Susa argitaletxeak egin berri duen liburu bildumari izena ematen diona. Euskaraz sortutako lehen bilduma feminista da hau, eta Jule Goikoetxea editoreak adierazi zuenez, “pentsamendu liburu sorta izango da, jada gai hauez hitz egiteko masa kritikoa baitago”. Bilduma honetako lehen liburua da *Borroka armatua eta kartzelak*, Zuriñe Rodríguez eta Oihana Etxebarrietak idatzitakoa. Bertan, Euskal Herriko gatazka-ren ikuspuntu feminista erakutsi dute, eta asanbladetan, tabernetan eta beste hainbat lekutan “probetxua atera” eta eztabaida sortzeko helburua du.

Guztira, hamalau pertsonen bizipenak kontatu dituzte egileek, gehienak emakumezkoak. “Gatazkaz hitz egitean, gudari edo militantek gizonetzko heterosexualak direla imajinatzen dugu, baina errealitatean emakume asko daude, eta hori salatu nahi dugu”, azaldu zuen Etxebarrietak. Berak kartzelako gaiak landu ditu, “bertan gertatzen diren eriazio afektibo sexuak daukaten garrantzia”, adibidez, bere usteetan, kartzelan egosten diren kontuek transzendentzia handia baitute.


Bestalde, Rodríguezek ikuspegi zabalagoa eman du liburuan, eta bakeaz ere aritu dira. “Nork negoziatuko duen ez dakigu, baina bakea gizonentzat bakarrik izango ote den beldur gara”, onartu zuen, eta beste egoera batzuetatik ekarpenak egin dituela azaldu zuen. –M.E.

‘Hielos y océanos’ evoca las aventuras y secretos de los marinos vascos

El historiador y antropólogo José Antonio Azpiazu publica un libro con hitos importantes de la Era Moderna

DONOSTIA – Desde los viajes al norte de Europa, hasta la conquista de América, la pesca en Terranova y las travesías al océano Índico han contado, en muchos casos con protagonistas vascos, y el historiador y antropólogo José Antonio Azpiazu ha tratado de mostrar la importancia de estas personas en su libro *Hielos y océanos. Vascos por el mundo*, editado por Txartalo. Con la colaboración de los historiadores Javier Elorza y José María Unsain, el autor del libro ha tratado de poner en relieve el protagonismo que ha acompañado a los vascos en la historia de la navegación. Nombres propios como Elcano, Urdaneta, Legazpi u Oquendo tienen cabida en el libro de Azpiazu, que ayudará a que el lector descubra algunos personajes clave de la época dorada y disfrute con las grandes aventuras y secretos de comienzos de la Era Moderna. –N.G.

los y océanos. Vascos por el mundo, editado por Txartalo. Con la colaboración de los historiadores Javier Elorza y José María Unsain, el autor del libro ha tratado de poner en relieve el protagonismo que ha acompañado a los vascos en la historia de la navegación. Nombres propios como Elcano, Urdaneta, Legazpi u Oquendo tienen cabida en el libro de Azpiazu, que ayudará a que el lector descubra algunos personajes clave de la época dorada y disfrute con las grandes aventuras y secretos de comienzos de la Era Moderna. –N.G.



El historiador y antropólogo José Antonio Azpiazu, ayer, en el Museo Naval. Foto: Ruben Plaza